

GAIZKI ERRANKA

Vox kritikatu baino lehen, oroit zaitez Telesforo Monzon matxiruloa zela



SANTI LEONÉ
@ororostorm

Ez da lehendabiziko aldia. Abenduan azaldu zigun Iñaki Iriartek, *Diario de Navarra*ko iritzi sailean hain zuzen, ez dela egokia Vox alderdia faxisten zakuan sartzea. Terminologia-ren aitzakian gauza funtsezkoagoren bat erakutsi nahi dutenen milikeria terminologikoarekin, Iriartek erraten zigun Voxekoen ideologia ez dela 20ko hamarkadako faxistena. Voxi faxista deitzea ez da historikoki zuzena; alderdia arrakasta izaten ari bada, zentro-eskuinean [sic] inor adieraztera ausartzen ez zen iritzi batzuk ozenki erratera ausartu delako da. Iritziak idatzi ditu Iriartek; ez egiak. Mutil trebea da.

Joan den larunbatean, berriz ere Voxen estakuruan, antifaxistei egurra eman zien Iriartek. Zer pentsatuko ote lukete, galdegiten zuen, ETArekin hasierako testuak irakurriko balituzte? Eta ondotik, adibideak: 1962ko testu batean ez dakit zer, Txillardegik behin badakit zer, eta, dena borobiltzeko, Telesforo Monzon matxiruloa hutsa zela.

Zutabeak zer pentsatua eman dit, batez ere egilea ez delako Luis Landa xelebrea, EHUn pentsamendu politikoa irakasten duen pertsona serio bat baizik. Zer erran nahi digu Iriartek? Diktadura batean bizi garela, eta Vox horren kontra borroka egiteko sortua dela? Espainia bertze herri baten mende dagoela uste dutela Voxekoek? Vox kritikatu duten guziak terroristak direla?

Edo, beharbada, abenduak ere kontuan hartuta, Iriartek erran nahi digu Vox alderdi eskuindar normala dela -tira, muturreko samarra, baina inolaz ere baztertua egotea mereziko lukeena-, eta ustezko antifaxistak direla benetan arriskua dakartenak.

Berriki irakurri diot norbaiti muturreko eskuin autoritarioari unibertitateetan ari zaiola bidea prestatzen. Gero Iriarteren zutabeak irakurri ditut. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com



"MENDEKUA JASATEN ARI GARA, OSAKIDETZAKO IRUZURRA SALATU GENUELAKO"

MARTA MACHO ETA ROBERTO SÁNCHEZ, ANESTESISTAK

"Salatu nahi dugunak indarra izan dezan, aurpegia eman beharrean ikusi dugu gure burua", diote, Osakidetza-ko oposaketetan ematen den iruzurra argitara eman ostean. Babesa eskatu dute, Osakidetza-ko "traidoreak" bihurtu direlako. "Goi-karguek ez gintuztela ikusi ere egin nahi esan ziguten; hori izan zen lehen erreakzioa". Sabin Etxean "fitxatuta" zituztela ere esan zieten.

ELDIARIO.ES (2019/01/22)

